

## Xedapen Orokorrak

### INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

484

505/1995 DEKRETUA, abenduaren 5ekoa, Urkiolako Parke Naturaleko Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren zati arau-emailea onesteko eta oso-osorik argitarata dadila agintzeko dena.

Abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuaren bidez Urkiolako Parke Naturalaren deklarazioa egiten da.

Otsailaren 22ko 102/1994 Dekretuaren bidez Urkiolako Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onetsi zen.

275/1989 Dekretuaren 8. atalean eta Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 27. atalean aurrikusitakoa betetzeko, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek, Parke Naturaleko erakunde kudeatzaileak baitira, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren dokumentua egin dute, eta 16/1994 Legearen 29. ataleko prozedurarekin bat etorritik tramitatu dute.

1995eko ekainaren 27an eta 1995eko abuztuaren 16an, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundietako Diputatuen Kontseiluek 16/1994 Legearen 29. atalaren e) idazatian Parkea kudeatzeko aipatzen diren gidalerroak, irizpideak eta jokamolde orokorrak onetsi ziren, eta Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailera igorri zuten Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana, bere zati arau-emailea Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onesteko.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko abenduaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*— Dekretu honen eraskin gisa argitaratzen den Urkiolako Parke Naturaleko Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren 2.2, 3.3, 4.3, 5.2, 6.2, 7.1.2, 7.2.2, 7.3.2, 7.4.2, 7.5.1, 7.7.2, 8.2.2, eta 8.3.2 atalak behin-betiko onestea.

AZKEN XEDAPENA

Honako dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko abenduak 5.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

484

DECRETO 505/1995, de 5 de diciembre, por el que se aprueba la parte normativa del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Urkiola y se ordena la publicación íntegra.

Por Decreto 275/1989, de 29 de diciembre se declara el Parque Natural de Urkiola.

Por Decreto 102/1994, de 22 de febrero se aprueba el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 8 del Decreto 275/1989, así como en el artículo 27 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza, las Diputaciones Forales de Alava y Bizkaia, gestoras del Parque Natural, elaboran el documento del Plan Rector de Uso y Gestión, tramitándolo de conformidad con el procedimiento del artículo 29 de la Ley 16/1994.

Con fecha 27 de junio de 1995 y 16 de agosto de 1995 son aprobadas por Consejo de Diputados de las Diputaciones Forales de Bizkaia y Alava, las directrices, criterios y pautas generales para la gestión del parque a que se refiere el apartado e) del artículo 29 de la Ley 16/1994, elevando el Plan Rector de Uso y Gestión al Departamento de Industria, Agricultura y Pesca para la aprobación de la parte normativa por Decreto del Gobierno Vasco.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 5 de diciembre de 1995.

DISPONGO:

*Artículo único.*— Aprobar definitivamente los apartados 2.2, 3.3, 4.3, 5.2, 6.2, 7.1.2, 7.2.2, 7.3.2, 7.4.2, 7.5.1, 7.7.2, 8.2.2. y 8.3.2, del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Urkiola que se publica como anexo al presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de diciembre de 1995.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## Aurkibidea

- 0. SARRERA
- 0.1. LEGEZKO XEDAPENAK
- 0.2. INGURUNE FISIKOA
- 0.3. GIZARTE INGURUA
- 0.4. BALIABIDEAK
- 1. XEDAPEN OROKORRAK
- 1.1. IZAERA
- 1.2. ADMINISTRAZIOAK ESKU HARTZEKO ARAUBIDEA
- 1.3. HELBURUAK
- 1.4. EDUKIA
- 1.5. INDARRALDIA ETA BERRIKUSTEKO BALDINTZAK
- 1.6. EZARPEN EREMUA
- 2. HIDROLOGI PLANGINTZA
- 2.1. GIDALERRO ETA IRIZPIDEAK
- 2.2. ARAUPEKETAK
- 2.3. JARDUKETAK
- 3. FAUNA ETA FLORAREN BABESA
- 3.1. KUDEAKETARAKO GIDALERRO ETA IRIZPIDEAK
- 3.2. JARDUKETAK
- 3.3. KUDEAKETAREN ARAUPEKETAK
- 4. BASO PLANGINTZA
- 4.1. SARRERA
- 4.2. KUDEAKETARAKO GIDALERRO ETA IRIZPIDEAK
- 4.3. BASOGINTZAREN ARAUPEKETAK
- 4.4. JARDUKETAK.
- 5. ABELTZAINZTA KUDEATZEKO PLANA
- 5.1. KUDEAKETARAKO GIDALERRO ETA IRIZPIDEAK
- 5.2. KUDEAKETAREN ARAUPEKETAK
- 5.3. JARDUKETAK
- 6. EHIZARI BURUZKO PLAN TEKNIKOA
- 6.1. KUDEAKETARAKO GIDALERRO ETA IRIZPIDEAK
- 6.2. KUDEAKETAREN ARAUPEKETAK
- 6.3. JARDUKETAK.
- 7. ERABILERA PUBLIKORAKO PLANA
- 7.1. ATSEDENLEKUAK
- 7.2. IBILBIDEAK
- 7.3. ESKALADA
- 7.4. ESPELEOLOGIA
- 7.5. BESTELAKO JARDUERAK
- 7.6. HEZKUNTZA, INTERPRETAZIOA ETA IKERKETA
- 7.7. OSTATUAK
- 7.8. ARGIBIDEAK ETA ZABALKUNDEA
- 7.9. ESKUALDEAREN GARAPENA
- 7.10. PARKEARI LAGUNTZEKO TALDE PRIBATUAK
- 7.11. JARRAIPEN PLANA
- 7.12. ZERBITZU OROKORRAK
- 8. ERAIKUNTZAK ETA AZPIEGITURAK
- 8.1. SARRERA
- 8.2. SARBIDEAK ETA APARKALEKUAK
- 8.3. ERAIKUNTZAK
- 9. ERAUZKETAK ETA INDUSTRI JARDUERAK
- 10. SANTUTEGIAREN ALDE TURISTIKO-ERLIJIOSORAKO PLAN BEREZIA
- 11. KONPENTSAZIOEN EZARKETA BASOGINTZAN

## Índice

- 0. INTRODUCCIÓN
- 0.1. DISPOSICIONES LEGALES
- 0.2. MEDIO FÍSICO
- 0.3. MEDIO SOCIAL
- 0.4. RECURSOS
- 1. DISPOSICIONES GENERALES
- 1.1. NATURALEZA
- 1.2. RÉGIMEN DE INTERVENCIÓN ADMINISTRATIVA
- 1.3. OBJETIVOS
- 1.4. CONTENIDO
- 1.5. VIGENCIA Y CONDICIONANTES DE REVISIÓN
- 1.6. ÁMBITO DE APLICACIÓN
- 2. PLANIFICACIÓN HIDROLÓGICA
- 2.1. DIRECTRICES Y CRITERIOS
- 2.2. REGULACIONES
- 2.3. ACTUACIONES
- 3. PROTECCIÓN DE LA FAUNA Y FLORA
- 3.1. DIRECTRICES Y CRITERIOS DE GESTIÓN
- 3.2. ACTUACIONES
- 3.3. REGULACIONES DE GESTIÓN
- 4. PLANIFICACIÓN FORESTAL
- 4.1. INTRODUCCIÓN
- 4.2. DIRECTRICES Y CRITERIOS DE GESTIÓN
- 4.3. REGULACIONES FORESTALES
- 4.4. ACTUACIONES
- 5. PLAN DE GESTIÓN GANADERA
- 5.1. DIRECTRICES Y CRITERIOS DE GESTIÓN
- 5.2. REGULACIONES DE GESTIÓN
- 5.3. ACTUACIONES
- 6. PLAN TÉCNICO DE CAZA
- 6.1. DIRECTRICES Y CRITERIOS DE GESTIÓN
- 6.2. REGULACIONES DE GESTIÓN
- 6.3. ACTUACIONES
- 7. PLAN DE USO PÚBLICO
- 7.1. ÁREAS RECREATIVAS
- 7.2. ITINERARIOS
- 7.3. ESCALADA
- 7.4. ESPELEOLOGÍA
- 7.5. OTRAS ACTIVIDADES
- 7.6. EDUCACIÓN, INTERPRETACIÓN E INVESTIGACIÓN
- 7.7. ALOJAMIENTO
- 7.8. INFORMACIÓN Y DIVULGACIÓN
- 7.9. DESARROLLO LOCAL
- 7.10. GRUPOS PRIVADOS DE APOYO AL PARQUE
- 7.11. PLAN DE SEGUIMIENTO
- 7.12. SERVICIOS GENERALES
- 8. EDIFICACIONES E INFRAESTRUCTURAS
- 8.1. INTRODUCCIÓN
- 8.2. VÍAS DE ACCESO Y APARCAMIENTOS
- 8.3. EDIFICACIONES
- 9. ACTIVIDADES EXTRACTIVAS E INDUSTRIALES
- 10. PLAN ESPECIAL DEL ÁREA TURÍSTICO-RELIGIOSA DEL SANTUARIO
- 11. ESTABLECIMIENTO DE COMPENSACIONES EN EL SECTOR FORESTAL

## 11.1. AURREKARIAK

## 11.2. ERRENTA-GALERAK KONPENTSATZEKO BIDEAK

## 0.SARRERA

## 0.1. LEGEZKO XEDAPENAK

## 0.1.1. Aurrekariak.

Urkiolako Parke Naturalaren deklarazioa Naturguneen eta Basa-flora eta Faunaren Artapenerako mar txoaren 27ko 4/1989 Legeak eratzen duen markoaren barruan gauzatu zen, eta deklarazio horren bitartez babes araubidez hornitu zen parke naturala.

Eusko Jaurlaritzak, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eskaturik, Urkiolako Parke Naturala deklaratu zuen 1990eko urtarrilaren 4ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuaren bidez.

Geroago, Eusko Jaurlaritzak, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eskaturik, Urkiolako Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onetsi zuen 102/1994 Dekretuaren bidez; horrela, Urkiolako Parke Naturaleko natur baliabideen plangintza eta kudeaketarako tresna eratu zen, Naturguneen eta Basa-flora eta Faunaren Artapenerako 4/1989 Legean eta Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legean aurrikusitakoari dagokionez.

## 0.1.2. Zonifikazioa.

Parke Naturalaren antolamendurako planean egiten den zonifikazioa ondoko alde hauek bereizten dira:

- Babes bereziko aldeak: kontserbazioari begira, interes handia duten aldeak dira, landaredia, fauna, geomorfologia edota paisaiaren ezuagarriengatik eta bertan gutxi antzaldatu diren ekosistemak daudelako. Oro har, alde malkar eta erripatsuak dira.

Bi aldetan banatzen da, eta haietarik lehenak Untzilatx - Anboto - Zabalandi - Arangio lerrokadako gailurtza kararizkoa, bertako mendibularrik malkartsuenak eta parkearen hego-ekialdeko alderdia hartzen ditu bere baitan. Inguru horretan nabarmentzekoak dira Durangaldeko gailurtzak (paisaia bikaina eta flora eta fauna bereziak direla medio) eta pagadi zabalak.

Bigarrena Neberazarra eta Erreiletasoko mazelatik luzatzen da, hegoalderantz jeisten da Iturriotzeraino eta hego-mendebalderantz aurreratzen da ipar-mendebaldeko muturrean dagoen alde karstikoaren inguruetara, Mugarrako tontorra barne. Halaber, nabarmentzekoak dira Mugarran egoitza duten hegaztiak, falkoniformeak gehienbat.

- Harrera- eta igarotze-aldea: Urkiolako Santutegia eta bere inguruak, eta Urkiolako mendatetik Erreketegarako tartean errepidearen ondoan kokatzen diren ekosistemak biltzen ditu alde honek.

Oso inguru baliotsua da kultura eta paisaiaren aldetik; horrez gain, natur balio handi samarra du, ekosistema aipagarri batzuk biltzen baititu. Bisitari ugari etorri eta bildu ohi den lekua da.

## 11.1. ANTECEDENTES

## 11.2. MECANISMO DE COMPENSACIÓN POR PERDIDA DE RENTA

## 0. INTRODUCCIÓN

## 0.1. DISPOSICIONES LEGALES

## 0.1.1. Antecedentes

El Parque Natural de Urkiola fue declarado dentro del marco que ofrece la Ley 4/1989, de 27 de marzo, de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y la Fauna Silvestres, dotándole de un régimen de protección a través de su declaración como Parque Natural.

El Gobierno Vasco, a instancias del Departamento de Agricultura y Pesca, declaró el Parque Natural de Urkiola en el Decreto 275/1989, de 29 de diciembre, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco el día 4 de enero de 1990.

Posteriormente, el Gobierno Vasco, a instancias del Departamento de Agricultura y Pesca, aprobó el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales de Urkiola en el Decreto 102/1994, constituyendo el instrumento de planificación y gestión de los recursos naturales del Parque Natural de Urkiola, a los efectos previstos en la Ley 4/1989 de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres y en la Ley 16/1994 de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

## 0.1.2. Zonificación

En el Plan de Ordenación se realiza una sectorización del Parque Natural, distinguiéndose las siguientes zonas:

- Zonas de especial protección: Constituyen zonas de elevado interés para la conservación por las características de la vegetación, la fauna, la geomorfología y/o el paisaje y la presencia de ecosistemas poco transformados. Se trata, en general, de zonas abruptas con grandes pendientes.

Se divide en dos zonas, la primera de las cuales abarca las áreas del cresterío calizo comprendidas en la alineación Untzilatx - Anboto - Zabalandi - Arangio, las más abruptas de sus estribaciones y toda la parte suroccidental del Parque, donde cabe destacar las crestas del Duranguesado (de gran relevancia paisajística y con una flora y fauna singular) y las masas de hayedos.

La segunda se extiende por las laderas del Neberazarra y Erreiletasoko, baja por el Sur hasta Iturriotz y avanza en dirección NW hasta las inmediaciones de la zona kárstica ubicada en el extremo noroccidental, englobando el pico Mugarra. Adquiere gran importancia la avifauna asentada en el Mugarra formada por una significativa población de falconiformes.

- Área de recepción y tránsito: Área que comprende el Santuario de Urkiola y sus inmediaciones, y ecosistemas, situados junto a la carretera en el tramo comprendido entre el Puerto de Urkiola y el alto de Erreketegana.

Zona de alto interés cultural, paisajístico y valor naturalístico considerable por englobar algunos ecosistemas representativos. Zona tradicional de afluencia y concentración de visitantes.

- Basogintza eta abeltzaintzarako aldea: alde hau Mañaria-Otxandio errepidearen alde bietara zabaltzen da, eta Inungan aldeko lurak hartzen ditu bere baitan. Basogintza eta abeltzaintzarako produktibitate altu edo ertaina duten lurak dira eta adierazitako erabilera horiek eraldatutako aldeak dira nagusi.

- Abeltzaintza berrezartzeko aldea: Parkearen ipar-mendebaldeko muturrean dago, Aramotzetik Mugarrako haitzaren inguruetaraino. Lurralde hau, batez ere, harritsu eta altua izateagatik bereizten da eta erakuntza karstiko berezi samarra dauka. Lurralde honetan dagoen landaredia larrakitua larratzearen bidez aprobetxatzen da eta natur baldintzek alde batzuetan orain dagoena ez den beste edozein landarediren garapena mugatzen dute.

Alde horien helburu eta gidalerroak eta haiei buruzko arauak Natur Baliabideen Antolamendurako Planaren 22. ataletik 25.era bitartean jasotzen dira.

## 0.2. INGURUNE FISIKOA

### 0.2.1. Marko geografikoa eta aztertze-eremua.

Urkiolako Parke Naturala Araba eta Bizkaiko lurralde historikoen ekialdeko mugan dago. Aramotzeko mendizerrak, Durangaldeko mendiek eta Arangioko mendizerrak osatzen dute, guztiak isurialde atlantiarra eta mediterraniarra banatzen dituen lerroko mendiak.

Bere zabalera 5.958,3 ha-koa da eta perimetroa 83,8 km-koa. Bi punturen arteko gehinezko tartea 20,5 km-koa da, iparmendebaldeko mugatik (Aramotz) hegoaldeko mugara (Tellamendi) dagoen tartea, alegia.

Gehieneko altuera Anbotokoa da -1.330 m- eta gutxienezkoa Zallobentakoa -240 m-, baina lurralde gehiena 600 metrotik gora dago.

Urkiolako parke naturaleko lurak zortzi udalerrirenak dira. Azalera honela banatzen da:

- Zona forestal - ganadera: Esta zona se extiende a ambos lados de la carretera Mañaria - Otxandio, e incluye los terrenos del área de Inungan. Se trata de terrenos con valor productivo alto o medio para los usos forestal y ganadero, predominando zonas transformadas por los usos mencionados.

- Zona de restauración ganadera: Se ubica en el extremo noroccidental del Parque, extendiéndose desde Aramotz hasta las inmediaciones del pico Mugarra. La característica fundamental de este territorio radica en sus condiciones de pedregosidad y altitud e incluye una formación kárstica de singularidad notable. La vegetación rala existente en este territorio se aprovecha mediante pastoreo y sus condiciones naturales limitan el desarrollo de cualquier otro tipo de vegetación que la ya existente en algunas zonas.

Cada una de estas zonas dispone de sus objetivos, directrices y normativa, recogida en los artículos 22 a 25 del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales.

## 0.2. MEDIO FÍSICO

### 0.2.1. Marco geográfico y ámbito de estudio

El Parque Natural de Urkiola está situado en el límite oriental de los Territorios Históricos de Álava y Bizkaia. Está constituido por las sierras de Aramotz, Montes del Duranguesado y Sierra de Arangio, montañas de la divisoria de aguas cantábrico-mediterránea.

Tiene una extensión del 5.958,3 ha, con un perímetro de 83,8 km. La máxima distancia entre dos puntos es de 20,5 km que corresponde a la separación entre el límite noroeste (Aramotz) y sudeste (Tellamendi).

La altitud máxima corresponde al Anboto con 1.330 m y la mínima a Zalloventa con 240 m, si bien la mayor parte del territorio presenta una altitud superior a los 600 metros.

El territorio del Parque Natural de Urkiola pertenece a ocho municipios. La contribución por superficie es la siguiente:

Lurralde Historikoa	Udalerria	Hartzen duen azalera	%etan
Araba	Aramaio	857,4	14,39
	Bizkaia	Abadiño	1.454,2
	Amorebieta-Etxano	98,5	1,65
	Atxondo	613,4	10,30
	Dima	1.498	25,14
	Durango	107,6	1,81
	Izurtza	50	0,84
	Mañaria	1.279,2	21,47
Bizkaia	Guztira	5.100,9	85,61
	Parkea guztira	5.958,3	100,00

<i>Territorio Histórico</i>	<i>Término municipal</i>	<i>Superficie implicada</i>	<i>Porcentaje</i>	
Álava	Aramaio	857,4	14,39	
	Bizkaia	Abadiño	1.454,2	24,41
		Amorebieta-Etxano	98,5	1,65
	Atxondo	613,4	10,30	
	Dima	1.498	25,14	
	Durango	107,6	1,81	
	Izurtza	50	0,84	
	Mañaria	1.279,2	21,47	
Bizkaia	Total	5.100,9	85,61	
	Total Parque	5.958,3	100,00	

### 0.2.2. Klima

Klimari dagokionez, Urkiolako parke naturala, isurialde biak banatzen dituzten mendien lerroan kokaturik, Bizkaiko klima atlantiar ekialdeko Araba gehieneko klima mediterraniar kontinentalera bitartekoa da. Aldaketa hori ez da bapatean gauzatzen, apurka-apurka baizik. Mendiek pantaila klimatikoa osatzen dute, prezipitazioak areagotuz eta hodeiak ugalduz.

Hala neguan nola udan tenperaturak epelak dira, itsasoaren eraginak gozatuak. Urteko batez-besteko tenperatura 11° C ingurukoa da; gehieneko tenperatura batez-bestekoa 15,5° C-koa da eta gutxienezkoena 7° C-koa.

Euri-legeari dagokionez, urteko batez-besteko prezipitazioa 1.500 mm-koa da, eta maila plubiometrikorik gorena urtarrilean izan ohi da. Nahiz eta urteko hilabete guztietan euria egiten duen, uda sasoiari euri-egun gutxi izan ohi da eta hegoaldeko isurialdea aridoago egon ohi da iparraldekoa baino.

### 0.2.3. Gea

Inguru honetako materialak, gehien bat, buztinak, harearriak eta kararriak dira. Guztiak Behe-Kretazikoak dira, Koaternarioko estaldurak izan ezik, eta serie bakoitza maila kronologiko bati dagokio.

Mendilerro nagusienak ia ehun metroko lodiera duten kararizko multzo handiez osatuta daude. Beran ugariak dira dolinak eta haitzuloak, kararria disolbatzearen ondorioz sortutakoak.

Koaternarioko estaldurak lodiera txikiko sedimentuak dira eta honako leketan azaltzen dira: zoru elubialak, mendi-hegaleko higakinak, erreken garraiakeak; eta zohikaztegiak, lohiuneak eta buztin-lurrak.

Parkea Bizkaiko antiklinorioaren barruan dago eta bertako haustura nabarmenena Urkiolako faila da. Faila hau grabitate erakoa da eta alderik alde zeharkatzen du eremua, Anboto eta Aramotz mendizerrak hegomendebaletik inguratuz.

### 0.2.4. Landaredia eta flora

Biogeografikoki, bere ezaugarriak erreparatuz gero, sailkapen hau dagokio bertako landarediari: eskualde eurosiberiarraren barruko sektore kantabriar-euskalduna (probintzia kantabriar-atlantiarra). Dena den, banalerroko mendietan kokatuta dagoenez, baditu eskualde mediterraniarraren bererezgarritasun banaka batzuk. Urkiolako Parke Naturalean bi estai bioklimatiko dau-

### 0.2.2. Klima

El Parque Natural de Urkiola, encuadrado en las montañas de la divisoria de aguas, constituye el paso entre el clima cantábrico oriental de Bizkaia, al mediterráneo continentalizado de la mayor parte de Álava. La transición no se hace de forma brusca sino paulatina. Estas montañas juegan un papel de pantalla climática, intensificando la precipitaciones y la nubosidad.

Tanto en invierno como en verano las temperaturas son suaves, dulcificadas por la influencia marina. La temperatura media anual ronda los 11° C, siendo 15,5° C la media de las máximas y 7° C la de las mínimas.

En cuanto al régimen de lluvias, la precipitación media anual es de 1.500 mm, registrándose el máximo pluviométrico en el mes de enero. Aunque la lluvia está presente todos los meses del año, el número de días de lluvia en la época estival es pequeño, detectándose una mayor aridez en la vertiente sur que en la norte.

### 0.2.3. Gea

Los materiales que dominan la zona son arcillas, areniscas y calizas. Exceptuando los recubrimientos cuaternarios, todos los materiales son del cretácico inferior, correspondiendo cada serie a un nivel cronológico distinto.

Las alineaciones montañosas más importantes están formadas por calizas masivas en un paquete de casi un centenar de metros de espesor. Estos macizos muestran evidentes signos de disolución en forma de dolinas, cavernas.

Los recubrimientos cuaternarios son sedimentos de poco espesor, siendo suelos eluviales, derrubios de ladera, acarreos fluviales y turberas, fangos y arcillas.

La zona está incluida dentro del anticlinorio vizcaíno, presentando como fractura más importante la falla de Urkiola, que es una falla de gravedad que atraviesa por completo el área bordeando por el sudoeste las Sierras de Anboto y Aramotz.

### 0.2.4. Vegetación y Flora

Biogeográficamente, la vegetación del área estudiada presenta los rasgos definitorios del sector cántabro-euskaldún (provincia cántabro-atlántica) de la región eurosiberiana. No obstante, al situarse en las montañas de la divisoria, los rasgos propios de la región mediterránea no están ausentes del todo. En el Parque Natural de Urkiola se encuentran dos pisos bioclimáticos. El lími-

de; bion arteko muga 600 m. inguruan dago.

Urkiolako landarediaren dibertsifikazioa hiru ezau-garritan oinarritzen da:

1.- 1.000 m-tik gorako lekuak; bertan elementu florístico boreo-alpetarrak aurkitzen dira.

2.- Jarraipen biogeografikoa ardatz kantauriar-piriniarrarekiko, berezko elementu florísticoekin.

3.- Kararrizko haitz-multzo nabarmenak, altuera eta orientazio ezberdinetan kokatuak, elementu florístico submediterraniarrak eta mediterraniar-menditarrak agertzea posible egiten dutenak.

#### 0.2.4.1. Landaredi potentziala

Estai muinotarreko landaredi potentziala *Quercus robur*-eko harizti atlantiarra izango litzateke; haran zokoetako lur sakonagoetan hostozabal kaduzifolioen baso mistoa; eta toki aldapatsuetan harizti azidofiloa. Haltzadiak errekaetako bazterretan haziko lirateke. Lurzoru urria eta ura gorde ezin duten kararrizko maldetan artadi kantauriarra, sastrakadi pernnifolioz osatutako kohortearekin, aurkituko genuke. Leungane-Artatxaganen hegoekialdean, oso leku bakanetan, *Quercus faginea*-ko erkameztiak ikusiko genituzke.

Estai menditarreko landaredi potentziala pagadia izango litzateke, azidoa edo eutrofoa substratuaren arabera; eguteraan dauden lur hareatsu lehor batzuetan *Quercus pyrenaica*-ko ameztiak.

Zenbait enklabetan, faktore ekologikoak gogorre-giak direlako, ezinezkoa izango litzateke zuhaitzeko eraketarik egotea eta bestelako formazioak agertuko lirateke: lurzoru azido, hotz eta hezeetan, txilardi zohikaztuak eta zohikaztegiak; hartxingadietako (harrizta mugikorretako) landaredia; eta labarretako landaredia.

#### 0.2.4.2. Gaurko landaredia

Gizakiaren jardueraren eraginez, landaredi potentzialari legozkiokoen formazio helduak oso leku txiki-tan gorde dira. Horien lekuan komunitate botaniko berriak daude, jatorrizkoak desitxuratu, eraldatu edo ordezkatu dituztenak.

Honakoa da landaredi-moten banaketa gaur egun:

Landaredi-mota	Azalera (ha)	Parkean (%)
Inguru urbanizatuak/Landaretzarik ez	22,81	0,38
Baso naturalak	1.529,67	25,67
Sastrakadiak eta zakardiak	795,26	13,35
Larreak eta belar-formazioak	559,56	9,39
Kare-harkaiztegi-tako landaredia	1.302,31	21,86
Baso-landaketak	1.673,34	28,08
Lorategiak, eskokatze aldeak, e.a.	76,37	1,28
Parke Naturala guztira	5.958,30	100,00

te entre estos dos pisos se encuentra en torno a los 600 m.

Urkiola presenta ciertos rasgos que introducen un factor diversificador en la vegetación:

1.- Las zonas de altitud superior a los 1.000 metros que permiten la existencia de elementos florísticos boreo-alpinos.

2.- La continuidad biogeográfica de estas montañas con el eje cántabro-pirenaico, lo que posibilita la persistencia de elementos florísticos propios.

3.- La importante extensión de las masas rocosas calizas que, distribuyéndose en distintas altitudes y orientaciones, favorecen la aparición de elementos florísticos de matiz submediterráneo y mediterráneo de montaña.

#### 0.2.4.1. Vegetación potencial

La vegetación potencial del piso colino estaría constituida por robledales atlánticos de *Quercus robur*. En los mejores suelos del fondo del valle se instala el bosque mixto de frondosas caducifolias y en situaciones de pendiente el robledal acidófico. Las alisedas se situarían en las orillas de las regatas. Sobre sustratos calizos en pendientes de escaso suelo y retención de agua, se extenderían los encinares cantábricos y su cohorte de matorrales perennifolios. En áreas muy reducidas al sureste de los paredones de Leungane-Artatxagan, se encontrarían quejigales de *Quercus faginea*.

La vegetación potencial del piso montano sería el hayedo, que dependiendo del sustrato, se podría encuadrar en ácido o eútrofo. En algunas laderas soleadas, en suelos areniscosos secos, se encontrarían marojales de *Quercus pyrenaica*.

Además de las formaciones arbóreas, ciertos enclaves, debido a factores ecológicos muy intensos, se verían ocupados por otras formaciones: brezales turbosos y turberas, en suelos muy ácidos, húmedos y fríos, vegetación de las gleras o pedrizas móviles y la vegetación de cantil.

#### 0.2.4.2. Vegetación actual

Las formaciones maduras de la vegetación potencial se encuentran muy reducidas, debido a la actuación humana. En su lugar se encuentran nuevas comunidades botánicas, alteradas, transformadas e, incluso sustituidas por otras.

La distribución actual de tipos de vegetación es:

<i>Tipo de vegetación</i>	<i>Superficie (ha)</i>	<i>Total del Parque (%)</i>
<i>Áreas urbanizadas/Sin vegetación</i>	22,81	0,38
<i>Bosques naturales</i>	1.529,67	25,67
<i>Matorrales y landas</i>	795,26	13,35
<i>Pastos y formaciones herbáceas</i>	559,56	9,39
<i>Vegetación de roquedos calizos</i>	1.302,31	21,86
<i>Plantaciones forestales</i>	1.673,34	28,08
<i>Jardines, zonas de desbroces, etc.</i>	76,37	1,28
<i>Total Parque Natural</i>	5.958,30	100,00

Zuhaitzek Parkearen azaleraren erdia pasatuta hartzen dute. Zuhaitzetan erdia baso naturalak dira eta beste erdia landaketak. Nabarmentzekoa da kare-harrikaitzegietako landaretzaren ugaritasuna. Baso naturaletan zuhaitz ugariena pagoa da eta bigarrena artea.

Las zonas arboladas representan algo más de la mitad del Parque, distribuyéndose casi a partes iguales entre bosques naturales y plantaciones. Destaca el importante porcentaje de vegetación de roquedos calizos. El árbol más representado en los bosques naturales es el haya, seguido por la encina.

<i>Baso-mota</i>	<i>Azalera (ha)</i>	<i>Parkean (%)</i>
Harizti-Baso mistoa	49,86	0,84
Haltzadia	81,29	1,36
Ameztia	8,46	0,14
Urkidia	32,57	0,55
Pagadi azidofiloa	459,44	7,71
Pagadi harritsu kaltzikola	501,12	8,41
Erlaitzeko baso mistoa	43,91	0,74
Artadi kantauriarra	353,02	5,93
Baso naturalak guztira	1.529,67	25,67

<i>Tipo de masa</i>	<i>Superficie (ha)</i>	<i>Total del Parque (%)</i>
<i>Robledal-Bosque mixto</i>	49,86	0,84
<i>Aliseda</i>	81,29	1,36
<i>Marojal</i>	8,46	0,14
<i>Abedular</i>	32,57	0,55
<i>Hayedo acidófilo</i>	459,44	7,71
<i>Hayedo petrano calcícola</i>	501,12	8,41
<i>Bosque mixto de crestón</i>	43,91	0,74
<i>Encinar cantábrico</i>	353,02	5,93
<i>Total bosques naturales</i>	1.529,67	25,67

Baso-landaketetan intsinis pinua da nagusia (1.067 ha.); gero bestelako koniferoak agertzen dira, baina askoz ere gutxiago.

#### 0.2.4.3. Flora

Urkiolako Parke Naturaleko floraren behin-behineko katalogoan 660 taxon jaso dira. Horien artetik 156 bereziki interesgarriak dira, ondorengo sailkapenaren arabera:

En las plantaciones forestales domina el pino insignis con 1.067 ha, seguido a larga distancia por otras coníferas.

#### 0.2.4.3. Flora

El catálogo provisional de la flora del Parque Natural de Urkiola comprende un total de 660 taxones, de los que se señalan 156 como especialmente interesantes, según la siguiente clasificación:

<i>Kategoria</i>	<i>Arraroak(A)</i>	<i>Arraro lokalizatuak(AL)</i>	<i>Oso arraroak (OA)</i>	<i>Endemikoak (E)</i>
<i>Taxonak</i>	100	12	35	12

  

<i>Categoría</i>	<i>Raras(R)</i>	<i>Raras localizadas(LR)</i>	<i>Muy raras(RR)</i>	<i>Endémicas(E*)</i>
<i>Taxones</i>	100	12	35	12

Endemismoaren kontzeptuak lurralde geografiko zehatz baten erreferentzia behar du ezinbestean. Berez, Parkean ez dago espezie endemikorik, hau da, Parkeaz beste inon bizi ez den espezierik. Hemen endemikotzat jotzen ditugunak Kornisa Kantabriarrean eta Penintsulako iparraldeko mendietan baino ez dira aurkitzen.

Urkiolako flora interesgarriena gordetzen duten inguruneak aztertuz gero, ondorio hauek ateratzen dira:

1.- Oso arraroak (OA) diren espezie gehienak harkaitzegietan bizi dira (%41), batik bat arrakala eta pitzaduretako inguruneetan eta laiotzean. Hostozabalen basoetan espezie oso arraroen %24a dago, batez ere artadi kantauriarretan.

Zohikaztegi hezeek, azalera txikia izan arren, oso arraroen kopuru handi bat gordetzen dute (%22), eta horregatik, Parkeko ingurune baliotsuenak dira.

2.- Espezie arraro lokalizatuentzat (AL) harkaitzegiak dira ingurune egokienak eta bertan ikusten dira sarrien. Hortik kanpo, larre menditarretan ere kategoria horretako bi espezie bizi dira.

3.- Espezie arraroak (A) edozein inguruneetan eta kopuru berdintsuan agertzen dira: harkaitzegietan (37), hostozabalen baso naturaletan (32), larre-sastrakadietan (32) eta zohikaztegi hezeetan (25).

Harkaitzegietan, balio floristiko handiena duten habitatak honako tokiak dira: arrakalak eta pitzadurak, labarretako behealdeak, eta goialdeetako zenbait laioztzune. Bestalde, hostozabalen basoetan (baso mistoak, pagadiak eta artadi kantauriarrak) kategoria honetako flora ugariena bizi da.

Larre-sastrakadietan, flora bereziena larre harritsuetan dago eta, ondoren, larre menditarretan. Edonola ere, berriro gogoratu behar da zohikaztegi hezeen balioa, txikiak izanik ere Urkiolako espezie arraroen %21 gordetzen dute eta.

4.- Espezie endemikoetan (E) ere harkaitzegietako taxonen espezializazioa (9) ikusten da, batez ere laioztzean; horietako hiruk bakarrik dute arraroen kategoria. Gainontzeko endemismoak larre-sastrakadietan agertzen dira: bi espezie txilardi kaltzikoletan, eta beste bat substratu azidoetako sastrakadietan eta baso meatzetan.

#### 0.2.5. Fauna

Urkiolako Parke Naturaleko ornodun espezieak, kiropteroak kenduz gero, 126 dira eta honela banatzen dira klaseen arabera:

Klaseak	Arrainak	Anfibioak
Espezie kop.	4	7
Portzentaia	3,28	5,74

La consideración de endemismo requiere la referencia a un marco geográfico determinado. En el Parque Natural de Urkiola no existen especies propias y exclusivas de él, por lo que no existen especies endémicas del Parque. Las especies que en este documento son consideradas endémicas se encuentran restringidas a la cornisa cantábrica y montañas del norte de la Península.

Del análisis de los ambientes donde se desarrolla la flora de interés de Urkiola se pueden extraer las siguientes conclusiones:

1.- La mayor parte de las especies muy raras (RR) aparecen en los roquedos (41%), principalmente en los ambientes puntuales de grietas y fisuras, y en exposiciones de umbría. Los bosques de frondosas son el refugio del 24% de las especies muy raras, siendo los encinares cantábricos los mejor representados.

Las áreas higroturbosas, minoritarias en extensión superficial, acogen, por el contrario, una muestra amplia de estas especies (22%), lo que sirve para calificar a tales ambientes entre los más valiosos del Parque. Los pastos petranos y montanos apenas acogen especies en esta categoría.

2.- Para las especies raras localizadas (LR), los roquedos constituyen los ambientes más favorables, donde se concentra la mayor proporción. Otras dos especies de la categoría están presentes también en los pastos montanos.

3.- Las especies raras (R) se reparten casi por igual en diversos ambientes: roquedos (37), bosques naturales de frondosas (32), pastos-matorrales (32) y áreas higroturbosas (25).

En los roquedos, el hábitat de mayor valor florístico lo representan las fisuras y grietas, los pies de los cantiles y ciertas áreas expuestas en umbría, en las zonas altas. Por su parte, los bosques de frondosas, bosque mixtos, hayedos y encinares cantábricos guardan la flora más representada en esta categoría.

Entre los pastos-matorral, es la flora de los pastos petranos la que alcanza mayor singularidad, seguida de los montanos. Pero de nuevo hay que resaltar el valor de las áreas higroturbosas, dado que en ambientes tan localizados se cobija el 21% de las especies raras de Urkiola.

4.- Para las endémicas (E) se constata, igualmente, una especialización de taxones propios de los roquedos (9), principalmente en exposiciones de umbría; de ellos, sólo tres alcanzan la categoría de raras. El resto de endemismos aparece en los pastos matorral: dos especies en brezal calcícola y una en los matorrales y bosques claros de sustrato ácido.

#### 0.2.5. Fauna

La fauna vertebrada del Parque Natural de Urkiola, excluidos quirópteros, está compuesta por 126 especies, distribuyéndose por clases de acuerdo con el siguiente cuadro:

Narrastiak	Hegaztiak	Ugaztunak
10	74	31
8,2	60,6	25,41

Clases	Peces	Anfibios	Reptiles	Aves	Mamíferos
N.º especies	4	7	10	74	31
Porcentaje	3,28	5,74	8,2	60,6	25,41

Urkiolako faunan nagusi dira espezie eurosiberiar-  
rrak(%83tik gora), jatorrizkoak edo barriadura bitar-  
tez iritsitakoak. Badira ere mediterraniarrak (%13),  
etiopiar-ekialdekoak (%0,8) eta kosmopolitak ((%2,5).

Urkiolako espezie asko babestuta daude hainbat  
legeriatan. Estatu mailan, «Arriskuan dauden Espe-  
zieen Katalogoan» Urkiolako hirurogeita hamalau  
espezie daude; hiru arrantzetakoak dira eta hamabi  
ehizatzeakoak. Europako Elkarteko legeriak, Hegaztien  
Arteztarauaren bidez, Parkeko 19 espezie babesten ditu  
eta, Habitaten Arteztarauaren bidez, beste 15.

Basa fauna babesteko nazioarteko hitzarmenetatik  
hauek dute indarra eta eragina Urkiolako Parkean: Berna-  
ko Hitzarmenak (106 espezie babesten ditu), Bonn-  
eko Hitzarmenak (30 espezie) eta Washington-goak (15  
espezie).

#### 0.2.6. Paisaia

Urkiolako paisaia oso eraldatuta dago antzinatik  
gizakiak erabili eta itxuraldatu duelako. Hala eta guz-  
tiz ere, oso paisaia aberatsa da, eta, Euskal Herriaren  
eremuan, kalitate handikotzat jo daiteke.

Paisaia aldetik, multzo nabarmenena Parkeko kara-  
rrizko mendizerrek osatzen dute. Haitz-multzo bikain  
hauek oso malkartsuak eta ertz zorrotzekoak dira. Par-  
kea HE-IM ardatzean zeharkatzen dute eta kontraste  
handia sortzen dute gainerako paisaien artean.

Gailur hauetako behealdean hainbat baso-mota dau-  
de: artadi ilunak, pagadi trinkoak eta sail landatu han-  
diak. Honek dibertsitatea eta aberastasuna ematen dio  
paisaiari.

Zelai karstikoek ere paisaia aberatsa dute. Han-  
hemenkako elementu zati ezberdinek (sastrakadiak,  
larreak, harkaiztegiak, pagadiak eta pinudiak) mosaiko  
moduko paisaia eratzen dute. Gainera, landareen eiteak  
balio estetiko berezia du topografiari bereziki moldatu-  
tako formak agertzen dituztelako.

Haranetan sail landatuak daude batez ere, tarteka  
hostozabalen basotxoren bat edo beste badago ere. Alde  
hauetan paisaia artifizialagoa da, adibidez, forma geo-  
metriko ugari ikusten direlako jabetzaren banaketa dela  
eta. Nolanahi ere, zonalde hauek kolore berdea urte  
osoan gordetzen dutenez gero, halako xarma bat badute  
jende-mota baten ikuspegitik.

Paisaia gehien eraldatu duten faktoreak azpiegitu-  
razkoak dira. Aipagarrienak bi dira: Santutegi ingurua  
I-H norabidean zeharkatzen duen goi-tentsioko kablea;  
BI-623 errepidea, norabide berean Parkea erdialdetik  
zeharkatzen duen errepidea, trafikiko handia duena.  
Hauetaz gain, harrobiek zenbait tokitan eragiten duten  
inpaktua ere nabarmentzekoa da.

La fauna de Urkiola está formada principalmente por  
especies de origen y/o dispersión típicamente eurosibe-  
rianas, con más del 83% del total. También existen  
especies de origen mediterráneo (13%), etiópico-orien-  
tales (0,8%) y cosmopolitas (2,5%).

Un gran número de las especies que habitan Urkiola  
se encuentran protegidas por diversas legislaciones. A  
nivel estatal, setenta y cuatro de ellas están incluidas en  
el Catálogo Nacional de Especies Amenazadas, tres  
pueden ser objeto de pesca y 12 de caza. La legislación  
comunitaria por medio de la Directiva de Aves protege  
a 19 especies, mientras que otras 15 especies son prote-  
gidas por la Directiva de Hábitats.

De los convenios internacionales dedicados a la pro-  
tección de la fauna silvestre, aplicables en Urkiola, el  
Convenio de Berna protege a 106 especies, el Convenio  
de Bonn a 30 especies y el de Washington a 15 espe-  
cies.

#### 0.2.6. Paisaje

El paisaje de Urkiola posee un elevado grado de alte-  
ración debido al uso y ocupación que de este territorio  
ha realizado el hombre desde tiempos inmemoriales. A  
pesar de ello, constituye un paisaje de gran riqueza, que  
puede considerarse de gran calidad en el País Vasco.

El conjunto paisajístico fundamental lo constituyen  
las grandes sierras calizas que recorren el Parque según  
su eje SE-NO. Estas grandes masas rocosas, de fuertes  
pendientes y afiladas crestas, destacan nítidamente  
sobre el resto del paisaje.

La parte baja de estos cresteríos está cubierta por  
oscuros encinares, espesos hayedos y grandes manchas  
de plantaciones, lo que ocasiona un paisaje muy rico en  
diversos aspectos.

Las planicies kársticas poseen un paisaje muy diver-  
so, constituido por retazos en distintas proporciones de  
matorrales, pastos, roquedos, hayedos y pinares, que le  
confieren una calidad estética, dada la adaptación que  
sus formas tienen a la topografía del terreno.

Los valles están poblados principalmente por planta-  
ciones, con algunas intercalaciones de bosques de fron-  
dosas. La artificialidad del paisaje es mayor en estas  
zonas, donde se encuentran un gran número de formas  
geométricas, debido a la distribución de la propiedad.  
No obstante, el aspecto siempre verde que presenta  
durante todo el año hace este paisaje atractivo para cier-  
to público.

Las mayores alteraciones del paisaje provienen de las  
infraestructuras, destacando especialmente la línea de  
alta tensión, que atraviesa la zona del Santuario en  
dirección norte-sur y la carretera BI-623, de intenso  
tráfico, que cruza el Parque por su parte central, en la  
misma dirección. A ellas se suman las alteraciones pro-  
ducidas por las canteras, que localmente son muy  
importantes.

### 0.2.7. Baliabide hidrologikoak

Urkiolak dituen berezitasunak direla-eta, bertan erreka eta ur-bide ugari jaiotzen dira. Hori dela eta, uren ezaugarri fisiko-kimikoak funtsezkoak dira inguruko arroetan. Hurbileko biziguneak hornitzeaz gainera, zenbait ur-bidek Urrunagako urtegiaren isurtzen dute beren emaria eta, aldi berean, urtegi honetaz baliatzen den hornidura-sistemak milioitik gorako biztanleria hornitzen du etengabe. Ikusten denez, Urkiolako baliabide hidrologikoek arreta berezia eskatzen dute.

Ura dela eta, bai azalekoa bai lurpekoa, Urkiola lau arrotan banatzen da. Inguru karstikoak Parkearen azalera gehiena hartzen du (ia %60): gehien bat kararrizko harkaiztegiak, eta zelai eta sakon karstikoak dira.

Ur-zirkulazioa inguru honetan lurpekoa da, nagusiki. Azalekoa, bestalde, urlaster bakan batzuk eta mendi-hegal periferikoetako iturburuak dira. Gainerako arroak isurialde bietan, atlantiarrean eta mediterranean, banatzen dira; bietan jasotzen den urteko prezipitazio kopurua antzekoa da. Isurialde atlantiarrean (Mañaria, Mendiola, Arrazola eta Aramaioko arroak) ingurua aldapatsua da eta, nola bertako isurketa-urek tarte txiki batean desnibel handiak gainditu behar dituzten, gogor higatzen dute lurzorua. Isurialde mediterranean (Urkiola eta Oleta errekek), aldiz, batezbesteko malda txikiagoa da.

Oro har, Urkiolako urlasterrak laburrak eta emari eskasekoak dira, Mañaria ibaia eta Mendiola eta Urkiola errekek salbu. Natura aldetik garrantzi handia dute ekosistema baliotsuak mantentzen dituztelako, baita ekonomi aldetik ere ur hornidurarako eta ekoizpen hidroeletrikorako kaptazio ugari egiten direlako. Urkiolan estiaje arin bat izaten da, ez oso nabaria, udan eta udazkenaren zati batean; garai horretan ur-emaria txikiagoa da. Klimaren eta azaleko uren arteko lotura bistakoa da euriteen ondoren han-hemenka azaleratzen diren urmael, iturburu eta erreka toetan.

Urkiolan ez dago industri isurkinik ezta isurkin urbanorik ere. Gainontzean kutsadura sortzen duten guneak bi motatakoak dira: batetik, azidarentzako azpiegiturak (tratamendu-eskortak eta bainulekuak); bestetik, gizakiak sortutako honakin solido eta likidoak. Honekin batera badira zenbait arazo urarekin zerikusia dutenak, alegia, urlaster naturalak irautea eragotzen duten aprobetxamenduak eta Urkiolako mazel batzuetako higadura. Arazo hauek konpontzea lehentasunezko helburua izango da datozen uretotan.

### 0.2.7. Recursos hidrológicos

Las características de Urkiola convierten a esta zona en el lugar de nacimiento de una gran cantidad de cursos fluviales, por lo que las características físicas y químicas de sus aguas van a tener una gran importancia en el conjunto de las cuencas. Además de abastecer a los núcleos de los alrededores, varios de estos cursos de agua drenan hacia la cuenca del embalse de Urrunaga, que forma parte del sistema de abastecimiento de una población superior al millón de personas. Todas estas características deben inducir a prestar una especial atención al tema hidrológico de Urkiola.

En materia de aguas, tanto superficiales como subterráneas, puede dividirse la superficie de Urkiola en cuatro grandes cuencas. La zona kárstica ocupa la mayor parte del Parque (cerca del 60% de su superficie), principalmente en forma de roquedos calizos y planicies y depresiones kársticas.

La circulación hídrica en esta zona es esencialmente subterránea, mientras que la circulación superficial se reduce a escasos cursos de agua y surgencias en las laderas periféricas. El resto de cuencas se dividen entre las vertientes cantábrica y mediterránea. La vertiente cantábrica (cuencas de Mañaria, Mendiola, Arrazola y Aramai) está compuesta por terrenos con fuertes pendientes medias y cursos de agua de alto poder erosivo, debido al gran desnivel que debe salvar el agua de escorrentía en distancias relativamente cortas. Por su parte, los terrenos de la vertiente mediterránea (arroyos Urkiola y Oleta) cuentan con una pendiente media menos elevada que en el caso de la vertiente cantábrica de Urkiola, siendo muy semejante la precipitación anual que se suele recoger en ambas vertientes.

Exceptuando el río Mañaria y los arroyos Mendiola y Urkiola, los cursos de agua de Urkiola son de pequeña magnitud en longitud y caudal. Cuentan con una gran importancia naturalística, dado que sostienen ecosistemas de gran valor, y económica, dadas las numerosas captaciones con destino al abastecimiento o a la producción hidroeléctrica. Los cursos de agua de Urkiola suelen contar con una época de estiaje, aunque no muy marcada, en la cual su caudal disminuye: verano y parte de otoño. La gran dependencia del clima con la circulación superficial del agua se refleja en el gran número de pequeños manantiales, surgencias y arroyos que aparecen tras una temporada de fuertes lluvias.

Sin problemas de vertidos industriales ni urbanos de importancia, los mayores focos de contaminación de Urkiola proceden por un lado de ciertas concentraciones de ganado en infraestructuras ganaderas: mangadas, bañeras, y de otro de los residuos sólidos y líquidos de origen antrópico. En paralelo, existen en Urkiola otras perturbaciones ligadas al agua, como la necesidad de regular los aprovechamientos hídricos que pongan en peligro la conservación de los cursos de agua naturales o la necesaria lucha contra la erosión en ciertas laderas de Urkiola. Debe ser labor prioritaria en los próximos años proceder al control y progresiva eliminación de todos estos puntos negros.

## 0.3. GIZARTE INGURUA

## 0.3.1. Jabetzaren banaketa

Urkiolako Parke Naturalean hainbat jabetza publiko eta pribatu mota daude basoei dagokienez. Izan ere, badira udal batzuen herri onurako mendiak, toki-erakundeen disposizio libreko mendiak, partikularren lurrak (norbanakoenak edo elkarteenak), selak eta, azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak berriki erositako mendiak. Hedaduraz ere oso ezberdinak dira jabetzak; esaterako, hektarea bat dutenak eta 911 ha duen Abadiño 18 zenbakiko herri onurako mendia. Jabetza-motaren arabera honela banatzen da azalera:

	Titularitate Publikoa			Titularit. pribatua
	H.O. mendiak	Disposizio librea	Guztira	
Azalera	1.695	365,3	2.060,3	3.898
Portzentaia	28,45	6,13	34,58	65,42
	<i>Titularidad Pública</i>			<i>Titularidad Privada</i>
	<i>Montes U.P.</i>	<i>Libre disposición</i>	<i>Total</i>	
<i>Superficie</i>	<i>1.695</i>	<i>365,3</i>	<i>2.060,3</i>	<i>3.898</i>
<i>Porcentaje</i>	<i>28,45</i>	<i>6,13</i>	<i>34,58</i>	<i>65,42</i>

Banaketa horretatik ondorioztatzen da oso garrantzitsua dela jabe-elkarteen onespina eta kolaborazioa jasotzea lur partikularretan egin beharreko edozein jarduketa burutu baino lehen.

## 0.3.2. Biztanleria

Santutegia izan ezik, Parkean ez dago inolako herri-gunerik; behealdean sakabanatutako baserri bakan batzuk besterik ez. Hala ere, berrogei kilometroko radioaren inguruan ia milioi terdi lagun bizi dira; beraz, oso zonalde humanizatua da.

Parkearen eremuan lurrak dituzten udalerriek 50.529 biztanle dituzte honela banatuta:

Abadiño	7.008	Dima	1.029
Amorebieta-Etxano	15.798	Durango	23.042
Aramaio	1.282	Izurtza	268
Atxondo	1.584	Mañaria	518

## 0.4. BALIABIDEAK

## 0.4.1 Basoak

Pagadi lepatuak eta intsinis pinudiak, azken hauek kare-harkaiztegiatiko ertzetaraino landatuak, Urkiolako ezaugarri behinenak dira. Itxuraz oso ezberdinak diren arren, bi paisaia-mota hauek gizakiaren jardueraren emaitza dira bi-biak. Gaur egun, Parkearen %54a

## 0.3. MEDIO SOCIAL

## 0.3.1. Distribución de la propiedad

En el Parque Natural de Urkiola coexisten distintos tipos de propiedad pública y particular en las masas forestales, dado que existen montes de Utilidad Pública de distintos ayuntamientos, montes de Libre Disposición de Entidades Locales, terrenos de particulares (individuales o en agrupación), selas y, por último, montes recientemente adquiridos por la Diputación Foral de Bizkaia. La extensión de las propiedades es muy variable, con propiedades de apenas una hectárea y otras, como el Monte de Utilidad Pública n.º 18 de Abadiño, con 911 ha. En la siguiente tabla se señalan las superficies, según tipos de propiedad.

De esta distribución de la propiedad se desprende la importancia de contar con la colaboración y conformidad de las asociaciones de propietarios afectados por el Parque, en todas aquellas actuaciones que se realicen en terrenos de propiedad particular.

## 0.3.2. Población

Con la excepción del área del Santuario, no existe ningún núcleo habitado, sólo se da la presencia de caseríos aislados, dispersos por las zonas más bajas del Parque. No obstante, éste se encuentra en una zona muy humanizada, con una población cercana al millón y medio de habitantes en un radio no superior a los cuarenta kilómetros.

Los municipios que aportan terrenos al Parque tienen una población de 50.529 habitantes, distribuidos del siguiente modo:

Abadiño	7.008	Dima	1.029
Amorebieta-Etxano	15.798	Durango	23.042
Aramaio	1.282	Izurtza	268
Atxondo	1.584	Mañaria	518

## 0.4. RECURSOS

## 0.4.1. Forestal

